## SARTZEKO BALDINTZAK

Baldintza hauetako bat bete beharko da:

1. Gutxienez titulu hauetako bat izatea:
   - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.
   - Oinarrizko lanbide-titulua.
   - Batxilergoko titulua.
   - Unibertsitateko titulua.
   - Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari titulua.
2. Gainditu izana:
   - Hasierako Lanbide Kualifikazioaren Programa baten derrigorrezko moduluak.
   - Hezkuntza Administrazioak baimendutako ikastetxe publiko eta pribatuetan Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak egin ahal izateko berariazko prestakuntza-ikastaro bat.
   - Erdi- edo Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko proba edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.
   - Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko lehen bi mailen multzoan gehienez ere bi ikasgai gainditu gabe.
   - Ertainen erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila.
   - Unibertsitate-orientazioko edo unibertsitate aurreko kurtsoa.
   - Arte Aplikatuen eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetatik 1963ko planeko hirugarren maila edo komunen bigarren maila esperimentala.

Gainera, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloetarako plaza-eskaera eskaintza baino handiagoa bada, Hezkuntza-Administrazioek ikastetxean Onarpeneko Kupo eta Lehentasunak ezarri ahalko dituzte.

## KUOTAK ETA ONARPEN-LEHENTASUNAK

Heziketa-Ziklo bakoitzean eskaintzen den guztizko plaza kopuruaren % 5 eskaera egiten den datan % 33 edo gehiagoko ezintasuna duten pertsonentzat erreserbatu beharko da eta beste % 5 eskaera egiten den datan goi-mailako edo errendimendu handiko kirolarientzat, 971/2007 Errege Dekretuan eta 203/2010 Dekretuan adierazitakoari jarraituz

**Erdi Mailako Heziketa-Ziklo** bat ikasteko gainerako plazak betetzeko honako era honetan banakatzen dira:

a) Plazen % 65 DBHko edo irakaskuntza baliokide bateko graduatu-titulua dutela egiaztatzen dutenentzat, honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituz:

a.1.- Plazen % 55 DBHko graduatu-titulua dutela egiaztatzen dutenentzat, honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituz:

a.1.1.– Esleipen-prozedura honetako ikasturtearen aurreko bi ikasturteetako batean DBHko 4. maila gainditu duten pertsonak.

a.1.2.– DBHko gainerako tituludunak.

a.2.- Plazen % 5 DBHko titulua Helduen Hezkuntzan (HHE) eskuratu dutenentzat.

a.3.- Plazen % 5 ikasketak atzerrian egin eta eskuratutako titulazioa homologatzeke duten ikasleentzat, betiere aurretiaz Baldintzapean izena Emateko Txartela aurkezten badute.

b) Plazen % 20 OLHko titulua egiaztatzen dutenentzat.

c) Plazen % 15 honako sarbide edo talde hauei esleituko zaizkie, lehentasunen-hurrenkera honetan:

c.1.- Erdi- edo goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probak gainditu dituztenak. Erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko proba gainditu dutenek izango dute lehentasuna.

c.2.- Uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriko a) apartatuan ageri diren titulu edo irakaskuntza batzuk gainditu dituztenak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izan ezik).

c.3.- Hasierako lanbide-kualifikazioko programa baten nahitaezko moduluak gainditu dituzten pertsonak.

c.4.- 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.

c.5.- Beste sarbide batzuk.

**Ordenazioa eta Baremazioa**

**a taldeko** plazentzat, izango dute onarpen-prozesu honetan hautatzen den kurtsoaren *aurreko bi ikasturteetako batean* Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua aurkezten duten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila gainditu duten pertsonek.

Plaza nork lortzen duen eta nork ez mugatzeko, lehentasuna ezarri ondoren, eskatzaileak beren ikasketa-espedienteko notaren arabera ordenatuko dira.

**b taldeko** plazetarako, lehentasuna emango zaie egiaztatzen duten Oinarrizko LHko tituluaren eta ikasi nahi duten tituluaren artean **I. kidetasuna** dutenei. I. kidetasuna ez dutenen artean, lehentasuna esleitzen zaie egiaztatuta duten tituluaren eta ikasi nahi duten tituluaren artean **II. kidetasuna** dutenei. Kidetasunen zerrenda .

Lehentasun-talde bakoitzaren barruan, eskatzaileak beren ikasketa-espedientean agertzen den notaren arabera ordenatzen dira.

**c taldeko** plazak lortzeko, lehentasuna dute c.I atalean daudenek, ondoren c.II atalean daudenek, gero c.III atalean daudenek eta horrela hurrenez hurren. c.I atalekoen artean, lehenago daude Erdi Mailarako sarrera-proba gainditu dutenak Goi Mailarako sarrera-proba gainditu dutenak baino.

Lehentasun-talde bakoitzaren barruan, eskatzaileak beren ikasketa-espedientean agertzen den notaren arabera ordenatzen dira.

**Titulazioak edo eskakizunak 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritakoak eta cII puntuko parte hartzen direnak**

- Teknikari Laguntzaile titulua izatea.
- Teknikari titulua izatea.
- Goi-mailako Batxilergo-titulua izatea.
- Irakaskuntza ertainen erreformako lehen ziklo esperimentaleko bigarren maila gainditu izana.
- Arte Aplikatuen eta Lanbide Artistikoen irakaskuntzetatik 1963ko planeko hirugarren maila edo komunen bigarren maila esperimentala gainditu izana.
- Batxilergo Bateratu Balioaniztuneko lehen bi mailen multzoan gehienez ere bi ikasgai gainditu gabe dituela frogatzea.
- Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko titulazio baliokideetakoren bat izatea, ikus hurrengo atalean *"Goi Mailako LHri Onarpeneko Kupo eta Lehentasunak"*.
- Ondorio akademikoetarako aurreko tituluren batekiko baliokidetzat deklaratuak izan diren beste ikasketa edo prestakuntza-ikastaroren bat gainditu izana

**Beste sarbide batzuk**

- Erdi-Mailako Heziketa-Zikloetan sartzeko prestakuntza ikastaro berezia.

# VI. ERANSKINA

## SARBIDERAKO LEHENTASUN-TAULAK

### I. TAULA – OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETAKO (OLH) TITULU BATETIK ERDI-MAILAKO TITULU BATERA SARTZEKO LEHENTASUNAK

| LANBIDE-ARLOA | OINARRIZKO LANBIDE-TITULU BATETIK: | ERDI-MAILAKO TITULU BATERA (1. LEHENTASUNA) | ERDI-MAILAKO TITULU EDO LANBIDE-ARLO BATERA (2. LEHENTASUNA) | ERDI-MAILAKO TITULU BATERA (3. LEHENTASUNA) |
|---|---|---|---|---|
| Jarduera Fisikoak eta Kirol-jarduerak | Kirol-instalazioen Irisgarritasuneko eta Kontserbazioko Oinarrizko Profesionala | > Natura-inguruneko eta Aisialdiko Gidari-lanetako Teknikarian | | Gainerako tituluak |
| Administrazioa eta Kudeaketa | Administrazio-zerbitzuak | > Administrazio-kudeaketa | > Merkataritza eta Marketina<br>- Merkataritza-jarduerak<br>- Elikagaien Merkaturatzea<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Arte Grafikoak<br>> Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza | Gainerako tituluak |
| Nekazaritza | Nekazaritza-lorezaintza eta Lore-konposizioak | > Lorategizaintza eta Lorezaintza | > Nekazaritza<br>- Natura-ingurunea Ustiatzea eta Kontserbatzea<br>- Nekazaritza Ekologikoko Produkzioa<br>- Nekazaritza eta Abeltzaintzako Produkzioa<br>> Elikagaien Industriak | Gainerako tituluak |
| | Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Jarduerak | > Nekazaritza Ekologikoko Produkzioa<br>> Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Produkzioa | > Nekazaritza<br>- Natura-ingurunea Ustiatzea eta Kontserbatzea<br>- Loretegizaintza eta Lorezaintza<br>> Elikagaien Industriak | Gainerako tituluak |
| | Baso-aprobetxamenduak | > Natura-ingurunea Ustiatzea eta Kontserbatzea | > Nekazaritza<br>- Loretegizaintza eta Lorezaintza<br>- Nekazaritza Ekologikoko Produkzioa<br>- Nekazaritza eta Abeltzaintzako Produkzioa<br>> Elikagaien Industriak<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila | Gainerako tituluak |
| Arte Grafikoak | Arte Grafikoak | > Inprimaketa Grafikoa<br>> Aurreinprimaketa Digitala | > Administrazioa eta Kudeaketa<br>> Merkataritza eta Marketina<br>- Merkataritza-jarduerak<br>> Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza | Gainerako tituluak |
| Merkataritza eta Marketina | Merkataritza-zerbitzuak | > Merkataritza-jarduerak<br>> Elikagaien Merkaturatzea | > Administrazioa eta Kudeaketa<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Arte Grafikoak<br>> Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza | Gainerako tituluak |
| Eraikuntza eta Obra Zibila | Eraikinak Eraberritzea eta Mantentzea | > Barnealdeetako, Dekorazioko eta Birgaitzeko Obrak<br>> Eraikuntza | > Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa<br>> Elektrizitatea - Elektronika<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>> Itsasoa eta Arrantza | Gainerako tituluak |
| Elektrizitatea-Elektronika | Elektrizitatea eta Elektronika | > Instalazio Elektriko eta Automatikoak<br>> Telekomunikazio-Instalazioak | > Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Itsasoa eta Arrantza<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila<br>> Kimika<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Gainerako tituluak |

| LANBIDE-ARLOA | OINARRIZKO LANBIDE-TITULU BATETIK: | ERDI-MAILAKO TITULU BATERA (1. LEHENTASUNA) | ERDI-MAILAKO TITULU EDO LANBIDE-ARLO BATERA (2. LEHENTASUNA) | ERDI-MAILAKO TITULU BATERA (3. LEHENTASUNA) |
|---|---|---|---|---|
| Fabrikazio Mekanikoa<br>eta<br>Instalatze eta Mantentze Lanak | Fabrikatzea eta Muntatzea | > Mekanizazioa<br>> Soldadura eta Galdaragintza<br>> Beroa Sortzeko Instalazioak<br>> Mantentze Elektromekanikoa<br>> Hozteko eta Girotzeko Instalazioak | > Fabrikazio Mekanikoa<br>- Metal eta Polimeroz Konformatzea<br>- Sistema Aeronautikoen Egiturak eta Instalazioak Muntatzea<br>> Elektrizitatea-elektronika<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Kimika<br>> Itsasoa eta Arrantza<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Gainerako tituluak |
| Fabrikazio Mekanikoa<br>eta<br>Elektrizitatea-Elektronika | Instalazio Elektroteknikoak eta Mekanika | > Mekanizazioa<br>> Soldadura eta Galdaragintza<br>> Instalazio Elektriko eta Automatikoak<br>> Telekomunikazio-instalazioak<br>> Mantentze Elektromekanikoa | > Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>- Beroa Sortzeko Instalazioak<br>- Hozteko eta Girotzeko Instalazioak<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>- Metal eta Polimeroz Konformatzea<br>- Sistema Aeronautikoen Egiturak eta Instalazioak Muntatzea<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Kimika<br>> Itsasoa eta Arrantza<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Gainerako tituluak |
| | Metalezko Elementuak Fabrikatzea | > Mekanizazioa<br>> Soldadura eta Galdaragintza<br>> Instalazio Elektriko eta Automatikoak<br>> Telekomunikazio-instalazioak<br>> Mantentze Elektromekanikoa | > Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>- Beroa Sortzeko Instalazioak<br>- Hozteko eta Girotzeko Instalazioak<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>- Metal eta Polimeroz Konformatzea<br>- Aireontzietako Egituren Muntaia eta Sistemen eta Tresneriaren Instalazioa<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Energia eta Ura<br>> Erauzketa-industriak<br>> Kimika<br>> Itsasoa eta Arrantza<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Gainerako tituluak |
| Ostalaritza eta Turismoa | Sukaldaritza eta Jatetxe-arloa | > Sukaldaritza eta Gastronomia<br>> Jatetxe-arloko Zerbitzuak<br>> Okintza, Gozogintza eta Konfiteria | >Ostalaritza eta Turismoa<br>- Elikagaien Merkaturatzea<br>>Irudi Pertsonala | Gainerako tituluak |
| | Ostatua eta Garbitegia | | >Ostalaritza eta Turismoa<br>>Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak<br>>Elikagaien Industriak<br>>Irudi Pertsonala | Gainerako tituluak |
| Irudi Pertsonala | Ile-apainketa eta Estetika | > Estetika eta Edergintza<br>> Ile-apainketa eta -kosmetika | > Elikagaien Industriak<br>> Ostalaritza eta Turismoa<br>> Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak<br>- Mendekotasun-egoeran Dauden Pertsonei Arreta Egitea | Gainerako tituluak |
| Elikagaien Industriak | Elikagaien Industriak | > Laborategiko Eragiketak<br>> Elikagaien Merkaturatzea | > Elikagaien Industriak<br>- Okintza, Gozogintza eta Konfiteria<br>>Kimika<br>- Planta Kimikoa<br>> Ostalaritza eta Turismoa<br>>Irudi Pertsonala<br>>Fabrikazio Mekanikoa<br>>Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Gainerako tituluak |
| Elikagaien Industriak<br>eta<br>Ostalaritza eta Turismoa | Okintzako eta Pastelgintzako Jarduerak | > Okintza, Gozogintza eta Konfiteria<br>> Sukaldaritza eta Gastronomia | > Ostalaritza eta Turismoa<br>- Jatetxe-arloko Zerbitzuak<br>- Elikagaien Merkaturatzea<br>> Merkataritza eta Marketina | Gainerako tituluak |

| LANBIDE-ARLOA | OINARRIZKO LANBIDE-TITULU BATETIK: | ERDI-MAILAKO TITULU BATERA (1. LEHENTASUNA) | ERDI-MAILAKO TITULU EDO LANBIDE-ARLO BATERA (2. LEHENTASUNA) | ERDI-MAILAKO TITULU BATERA (3. LEHENTASUNA) |
|---|---|---|---|---|
| Informatika eta Komunikazioak | Informatika eta Komunikazioak | > Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak<br>> Telekomunikazio-instalazioak | > Elektrizitatea - Elektronika<br>- Instalazio Elektriko eta Automatikoak<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>> Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa<br>> Itsasoa eta Arrantza<br>> Kimika<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila | Gainerako tituluak |
| Informatika eta Komunikazioak<br>eta<br>Administrazioa eta Kudeaketa | Bulegoko Informatika | > Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak<br>> Administrazio-kudeaketa<br>> Telekomunikazio-instalazioak | > Elektrizitatea - Elektronika<br>- Instalazio Elektriko eta Automatikoak<br>> Merkataritza eta Marketina<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>> Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa<br>> Itsasoa eta Arrantza<br>> Kimika<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila | Gainerako tituluak |
| Instalatze- eta Mantentze-lanak | Etxebizitzen Mantentze-lanak | > Hozteko eta Girotzeko Instalazioak<br>> Beroa Sortzeko Instalazioak<br>> Instalazio Elektriko eta Automatikoak | > Elektrizitatea-elektronika<br>- Telekomunikazio-instalazioak<br>> Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>- Mantentze Elektromekanikoa<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Gainerako tituluak |
| Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa | Arotzeria eta Altzarigintza | > Instalazioak eta Altzari-hornikuntza<br>> Arotzeria eta Altzarigintza | > Eraikuntza eta Obra Zibila<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>> Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>> Itsasoa eta Arrantza<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Elektrizitatea - Elektronika<br>> Informatika eta Komunikazioak | Gainerako tituluak |
| Itsasoa eta Arrantza | Itsaso- eta Arrantza-jarduerak | > Itsasertzeko Nabigazioa eta Arrantza<br>> Akuikultura-hazkuntza | > Itsasoa eta Arrantza<br>- Ontzi eta Itsasontzien Makineriaren Zainketa eta Kontrola<br>- Urpeko Eragiketak eta Eragiketa Hiperbarikoak<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>> Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>> Elektrizitatea - Elektronika<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Kimika | Gainerako tituluak |
| Itsasoa eta Arrantza<br>eta<br>Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak | Kirol-ontzien eta Laketontzien Mantentze-lanak | > Itsasertzeko Nabigazioa eta Arrantza<br>> Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzea eta Kontrolatzea<br>> Karrozeria<br>> Ibilgailu Automobilen Elektromekanika | > Itsasoa eta Arrantza<br>- Uretako Hazkuntzak<br>- Urpeko Eragiketak eta Eragiketa Hiperbarikoak<br>> Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak<br>- Makineriaren Elektromekanika<br>> Elektrizitatea - Elektronika<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>> Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>> Kimika<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa<br>> Informatika eta Komunikazioak | Gainerako tituluak |
| Gizarte- eta Kultura-zerbitzuak | Etxeko Lanak eta Eraikinak Garbitzea | > Mendekotasun-egoeran Dauden Pertsonei Arreta Egitea | > Ostalaritza eta Turismoa<br>> Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza<br>> Osasungintza<br>- Erizaintzako Zaintza Osagarriak (LOGSE) | Gainerako tituluak |

<table>
<tr><th>LANBIDE-ARLOA</th><th>OINARRIZKO LANBIDE-TITULU BATETIK:</th><th>ERDI-MAILAKO TITULU BATERA<br>(1. LEHENTASUNA)</th><th>ERDI-MAILAKO TITULU EDO LANBIDE-ARLO BATERA<br>(2. LEHENTASUNA)</th><th>ERDI-MAILAKO TITULU BATERA<br>(3. LEHENTASUNA)</th></tr>
<tr><td>Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze-lanak</td><td>Ibilgailuen Mantentze-lanak</td><td>> Ibilgailu Automobilen Elektromekanika<br>> Karrozeria<br>> Ontzi eta Itsasontzien Makineria Zaintzea eta Kontrolatzea<br>> Makinen Elektromekanika</td><td>> Elektrizitatea - Elektronika<br>> Itsasoa eta Arrantza<br>> Fabrikazio Mekanikoa<br>> Instalatze- eta Mantentze-lanak<br>> Kimika<br>> Zurgintza, Altzarigintza eta Kortxoa<br>> Informatika eta Komunikazioak<br>> Eraikuntza eta Obra Zibila</td><td>Gainerako tituluak</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza</td><td>Ehunezko eta Larruzko Artikuluen Konponketa.</td><td rowspan="2">> Jantzigintza eta Moda<br>> Oinetakoak eta Moda-osagarriak</td><td rowspan="2">> Merkataritza eta Marketina<br>> Arte Grafikoak<br>> Administrazioa eta Kudeaketa</td><td rowspan="2">Gainerako tituluak</td></tr>
<tr><td>Tapizatze-lanak eta Gortinagintza</td></tr>
<tr><td>Beira eta Zeramika</td><td>Beiragintza eta Buztingintza</td><td></td><td>> Arte Grafikoak<br>> Administrazioa eta Kudeaketa<br>> Merkataritza eta Marketina<br>> Ehungintza, Jantzigintza eta Larrugintza</td><td>Gainerako tituluak</td></tr>
</table>